


**TRATU ONEN HERRIA- MARIJO ARRIETA**

# BiziOn

**Zergatik eta zertarako sortu zenuten BiziOn?**

BiziOn elkartearen abiapuntua, justu izenak esaten duen bezala, ondo bizitzearen aldeko aldarria da. Eta horri lotuta, BiziOnetik bizitzen ari garen aro honi buruzko hausnarke-ta sustatzera gatoz. Zalantzarik gabe, bizi garen aroak aldaketa itzelak ekarri dizkigu. Zientzia eta teknologia asko aurreratu dira azken mendean, eta ondorioz, atzean geratu da gure aitona-amonen bizimodu-a. Egun, ondasun gehiago ekoizten ditugu lan ordu gutxiago eginez. Ondorioz, gure eguneroko bizitza antolatzeko tresna berri eta zerbitzu ugari eskura dauzkagu, zeintzuek *segurtasuna* ekarri diguten; eta, teoriarik, aisialdia kudeatzeko denbora gehiago ere bai. Alabaina, garapenarekin batera, ingurugiroari eta geure buruari kalte egiten dioten praktikak barneratu ditugu. Alegia, gure bizi-ohiturak aldatuz doaz: azkar jaten dugu, gutxi lo egin, autoz gehiegi ibiltzen gara, gehiegi kontsumitzen dugu eta abar. Izan ere, denok argi daukagu arazo global honi erantzun egin behar diogula. Horregatik, gure ingurune hurbiletik hasita, pauso txikiak eman nahi ditugu BiziOnetik. Nolabait, hitzetatik ekintzeta-ara jauzi egin nahi dugu.

**Eta orduan, zein da BiziOnen egiten duzuen lana?**

BiziOnen lan-esparrua herri-tarron bizi-ohiturak dira. Eta hau, zuhaitz bat bezala irudika dezakegu: enbor bakarra du, eta adar ezberdinez osatua dago. Enborra bizi-ohiturak dira; eta adarrak, berriz, gure eguna osatzen duten ekintzak, zeinak usadio bihurtu arte errepikatzen ditugun: elikatu, mugitu, ikasi, erosi, atsedean hartu, lan egin... Ohiturazko jarduera horiek eginez bizi gara. Eta BiziOnen, hain justu, ekintza horietan eragin nahi dugunez, arbolaren adar bakoitza landuko dugu, egitasmo txikiak sortuz. Horretarako, 2015-2016 ikasturtean bi proiektu jarri genituen martxan: BiziBusa eta HaziOn. BiziBusa proiektuak umeak eskolara bizikletaz eramaten ditu. Eta honek helburu pedagogiko zehatzak ditu: umeak autoen gehiegizko erabileraz eta hauen kutsaduraz ohartzea, haien ingurugiro gertukoena ezagutzera eta zaintzea, eta,

batez ere, autonomo izaten ikastea. Bestetik, HaziOn proiektuarekin, Yoga eskoletara eramaten dugu. Hezkuntza komunitatearen hezitzaile guzti-ak Yogan trebatzen ditugu, gero haiek egunerokoan ume-ekin txertatzeko.

**Zergatik animatu zineten 'Tratu Onen Mapa' prozesuan parte hartzea?**

Ba lehenik eta behin, Arremanitz Kooperatibaren eta BiziOnen helburuak oso paretsuak direlako; bakoitza bere esparrutik, baina argi dago biok gure lanari helmuga berdina markatzen diogula: Ondo bizitzea! Hortik gure erabakia, *Tratu Onen Mapa* parte hartzeko; Hernani hobe baten alde egitea delako.

**Zuen ustez, eta Tratu Onei dagokienez, zer indartu behar da Hernani mailan?**

Gure ustez, lehenetsia, jendearen kontzientzia da. Arestian aipatu dugun bezala, gure bizi ohituretan eta eguneroko praktiketan aldaketa urgentea behar dugu; eta horretarako, Hernaniko herri-tarren pentsakeran eta ekitekoan aldaketa txikiak beharrezkoak dira.

**Herrian daukaguna baloratze aldera, zeintzuk dira egun dauden praktika onak?**

Egun, herri mailan, elkarte asko dago ondo bizitzearen aldarria norbere esparrutik lantzen duena. Hernanin ingurugiroa, giza harreman osasuntsuak, kultura kolektiboa, desahazkundera, ekonomia soziala, bizitzaren jasagarritasuna eta beste hainbat gai lantzen dituzten eragileak lanean daude jada. Beraz, egiten diren ekintza guztiak dira lagungarriak herri hobe baten alde egiteko.

**Nola irudikatzen duzue denontzako ona izango den Tratu Onen herri amestu hori?**

Guk Tratu Onen Herria, herri xume eta balioetan oinarritua dagoena bezala irudikatzen dugu. Oinezkoentzako herria izango dena, umeak kaleetan jolastea ahalbidetuko duena, kutsadura gutxituko duena... Horregatik, herriko eragileak *Tratu Onen Mapa* parte hartzera animatzen ditugu. Denon herri hau Tratu Onen Herria bilakatu behar dugulako! ||


*Marijo Arrieta BiziOneko partaidea, Axun Larburu, Jon Altuna eta Iñaki Zuzarekin batera.*
**EROTIKAN PLAX - KANEKO ESNAL KASTRESANA**

## "Eguneroko monotoniak desioa akabatzen du"

1995etik Urbieta Kopiak aurkitu dugu Nekane lanean. Maitasuna egiteko modu pila dagoela dio, dena ez dela 'edredoning'. Gorputz osoaren bitartez eta modu askotan adierazi daitekeela eta ohiko bikotearekin ere konfiantza eraiki behar dela esan digu; ezezkoak, baiezkoak edo zer nahi dugun komunikatzeko.

**Jaio:**

1962.05.25

**Herria:**

Hernani

**Bizitokia:**

Lasarte

**Langileak:**

Kopistegiko langilea

**Askotan besteen berdina izaten saiatzen gara. Zer egin genezake kopiak izateari uzteko?**

Bakoitzak bere nortasuna diseinatu.

**Txintxetak ipurdian bezala da...**

Presa. Ikasi behar dugu lasai bizitzen.

**Txuri beltzean edo koloretan?**

Koloretan. Txuri beltza ere dotorea da.

**Zerk ematen dio kolorea bizitzari?**

Maitasunak, laguntasunak, eta zintzotasunak. Zurekin eta besteekin.

**Maitasun mezu bat post-it batean..**

MAITE ZAITUT, handiz jarrita.

**Arkatza edo boligrafoa?**

Biak gustatzen zaizkit asko.

**Zeni aterako zenioke punta txorroskiloarekin?**

Besteen kritika destruktiboei, bizkarretik gaizki esaka ibiltzeari.

**Erotismoan, zer azpimarratuko zenuke fosforitoz?**

Pertsonak, bakoitzak nahi duena, gogoia duena, errespetuz. Modak jarraitu gabe. Libre izan, libre bizi.

**Word, jpeg, pdf,... zein formatutan bizitzen da hobe?**

Bikotearekin eta familian baina libre.

**Gustuko momentua zure lanean?**

Hamaiketako: pintxoia eta sagardoa.

**Emakumeok zein paper jokatu dugu gizartearen aldaketan?**

Izugarrizko papera dugu kalean, etxean, familian. Askok aldatu beha-


*Kaneke, Urbieta kopiak lanean.*

rra dago. Orain ez ote gara morroiak? Objektuak?

**PLAZERREN PUTZUA**

Zer egiten duzu plazer hutsagatik? Maitasuna.

**Izozkia, zein zaporetakoa?**

Txokolatzkoa.

**Idatzi nahiko zenukeen liburua...**

Nire arbasoen historia, bitxikeriak, argazkiak... biltzen dituen liburua.

**Udako gau zoro baterako abestia?**

Esne beltza: 'Gogoak'.

**Goiz jaikitzeak merezi duen plana?**

Mendira buelta bat ematea, ahal bada, leku berriak ezagutzera.

**Usain bat...**

Mendiko krabelina. Pasada bat da.

**Enkantua duen txoko bat?**

Nafarroan, Erratzu herrian, Xorroxin ur-jauzia.

**Berreskuratze duzun desio bat?**

Globoan hegan egin. Buelta bat.

**Kalean, gau giroan ikusteko pelikula bat?**

'La cena de los idiotas'.

**SEX-ESALDIA BUKATU...**
**Desioa paperontzira doa...**

Eguneroko monotoniak eramaten zaituenean.

**Sexuketan ordu bakar batean...**

Goxo goxo.

**Zaindu maite duzun hori, zaindu...**

Ezazu galtzeko arriskuan egongo balitz bezala.

**Hamar urte barru...**

Epe motzeko planak egiten ditut!

**Nola esan...?**

Haserre zaudela haserretu gabe?

**Tatxan! eta orduan...**

Txirrinak jotzen du eta akabo!

**SASIGALDERA**
**Bezero batek jeloskortasun egoerei aurre egiteko, aholkuren bat?**

Plaxlera joateko. Oso jende jatorria dela. ||

PLAX! Hernaniko udaleko sexu eta bikote aholkularitza da. Aurrez-aurreko doako arreta zerbitzua ematen dugu. Sandiusterrri 1 zenbakian dugu bulegoa. Hurrengo saioak: irailak 14an (15:30-18:30) eta irailak 14aan (10:00-13:00). Hitzordua egiteko: 656 544 606 (deitu edo bidali whatsapp bat), [www.hernani.eus/sexu](http://www.hernani.eus/sexu) edo [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani)

**Berdintasun sailak diruz babestutako atala**